

10. ESKOLA-KIROL INKLUSIBOAREN DEKALO- GOA GIPUZKOAN





1. **Kirol jarduerarako sarbide unibertsala.** Eskola adinean dauden haur eta gazte guztiek izango dute kirola egiteko aukera.
2. **Kirolean laguntzeko sarea sortzea, beharrezkoa denean.** Eskola adinean dauden haur eta gazte guztiek kirola egiteko beharrezkoak diren apoioak eta laguntza teknikoak izan beharko dituzte.
3. **Kirola balio positiboen transmisore gisa.** Komunitate osoak (instituzionalak, sozialak, familiakoak eta kirolekoak) zainduko du eskola-kirola hezitzailea izatea, balioak transmititzeko bide bat izatea, eta pertsonaren premietara eta motibazioetara egokituta egotea, modu egokitu edo inklusiboan. Ahal den guztietan behintzat, eta kalitate parametroak betetzen baldin baditu eta behar diren euskarriak baldin baditu.
4. **Irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua, gizarte osoaren erantzukizuna.** Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioak beteko dira.
5. **Jakintza arlo horri buruzko prestakuntza arautua zein etengabea bermatzea.** Kirol eremurako laguntza eta prestakuntza egokia emango dira, aniztasunari arreta ematera begira.
6. **Aniztasun orekiko, hots, aniztasun kultural, funtzional, erlijioso, ideologiko eta abarrekiko errespetua.** Inguruneak ikasle guztiekiko errespetua erakutsiko du, kirol esparru berdinzaleagoa, seguruagoa eta bidezkoagoa sustatuz eta herritar zaurgarrienen artean aukera-berdintasuna lortzeko lan eginez.
7. **Eskola adineko kirolaren balioak behar bezala transmititzeko konpromisoa.** Gizarte osoari jakinaraziko zaio eskola adineko kirolaren balio positiboek duten garrantzia, modu kontzienteagoan eta pertsona guztientzat ulergarria izango den mezu argi batez, hain zuzen mezu hori ikastetxeetan, kirol klubetan eta abarretan betearaztearren.
8. **Sentsibilizazioa eta hezkuntza-materialak.** Erakundeek gizartea sentsibilizatzeko eta hezkuntza-materialak sortzeko apustua egin behar dute, aniztasun kulturalaren, ideologikoaren, erlijiosoaren, generokoaren, funtzionalaren eta abarren balio positiboak bultzatzeko.
9. **Laguntza komunitarioa eta inplikazio soziala eskola adineko kirolean.** Garrantzitsua da aniztasunarekiko errespetuaren balioa lantzea, aukera bikaina baita komunitate atseginagoak, konpromituagoak eta solidarioagoak sortzeko.
10. **Komunikabideen hezkuntza-konpromisoa.** Eskatu beharko litza-teke komunikabideek ardura eta konpromisoa hartzea, oro har kirolaren eta, bereziki, eskola adineko kirolaren balioak modu arduratsuan transmititzeko.